

I - ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 10/2105 Foru Dekretua, martxoaren 10ekoa, aldatzen duena ekainaren 25eko 3/2011 Foru Dekretua, zergadunen errolda eta horren inguruko betebeharrak arautu zituen

Otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergenak, Arabako Lurralde Historikoko zerga sistemaren printzipioak eta arau juridikoak erregulatzen ditu, eta Arabako Foru Aldundiari ahalmena ematen dio hura garatzeko beharrezkoak izan daitezkeen xedapenak emateko. Ahalmen hori erabiliz, urtarrilaren 25eko 3/2011 Foru Dekretua onartu zen, zeinak Zergadunen Errolda eta horren inguruko betebeharrak arautzeaz gain 6/2005 Foru Araua garatzen baitu, eta erroldaren betekizunak eta zerga egoitzari buruzkoak ere arautzen ditu.

3/2011 Foru Dekretuaren bi artikulua xedatzen duenez, Arabako Foru Aldundiaren Zergadunen Errolda Bakarra (ZEB) osatuko dute identifikazio fiskaleko zenbakia eduki behar duten eta Arabako Foru Ogasunarekin zerga izaera duten edo zerga ondorioak eragiten dituzten harremanak dauzkaten edo eduki behar dituzten pertsona guztiek edo erakundeek.

Enpresa jarduerak edo jarduera profesionalak egiten dituzten edo egiteko asmoa daukaten pertsonak zein erakundeak derrigortuta daude ZEBeko alta aurkeztera, baldin eta haien zerga egoitza Arabako Lurralde Historikoan badago, edo haien egoitza han ez egon arren jarduera ekonomikoen gaineko zergan alta ematearen aitorpena aurkeztu behar badute.

Proposatutako aldaketan asmoa da ZEBek esleituta dauzkan xedeak zabaltea eta tresna gisa balio izatea jarduera ekonomikoen gaineko zergan alta ematearen aitorpena aurkeztu behar dutenek lehenago jakinarazi diezaioten foru ogasunari ekonomia jarduerak hasi dituztela eta jarduerak hasi edo haiek egiteari uztea dakarten gorabeherak eragin dituztela.

Hartara, errolda aitorpena izango da zerga aitorten bat egingo dena jarduerak hasi aurretik eta haiek hasteak edo haiek egiteari uzteak jarduera ekonomikoen gaineko zergan dakartzaten gorabeheren gainerako zerga aitortenak egin aurretik.

Horrela lortzen dena da foru ogasunak ekonomia jardueren eta aipatutako gorabeheren hasierari buruzko lehenengo informazioa izatea, modu horretan hobetu egiten delarik zerga betebeharren kudeaketa eta informazio hori lehenago ematea lortzen delarik administrazio edo erakundeek, zeinekin arloko lankidetzak hitzarmenak baitaude.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak eta Aholku Batzordeak horri buruz emandako txostenak ikusi dira.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Aldatzea urtarrilaren 25eko 3/2011 Foru Dekretua, Zergadunen Errolda eta horren inguruko betebeharrak arautzen dituena.

Aldaketa hauek egiten dira urtarrilaren 25eko 3/2011 Foru Dekretuan, Zergadunen Errolda eta horren inguruko betebeharrak arautzen dituenean:

Bat. b) idatz zatia eransten zaio 12. artikuluko 3. paragrafoari; beraz, oraingo b), c), d), e) f), g), h) i), j), k), l), m), n), ñ), o), p), q) eta r) idatz zatiak hemendik aurrera izango dira c), d), e), f), g), h), i), j), k), l), m), n), ñ), o), p), q), r) eta s), eta b) idatz zatia honela idatzita geldituko da:

“b) Jarduera ekonomikoei ekin zaiela jakinarazi.”

Bi: a) idatz zatia eransten zaio 12. artikuluko 4. paragrafoari; beraz, 12. artikuluko 5. eta 6. paragrafoak izango dira artikuluko horretako 4. paragrafo b) eta c) idatz zatiak. Gainera, 7. paragrafoari beste zenbaki bat jarriko zaio, eta hemendik aurrera 5. paragrafoa izango da; hortaz, honela idatzita geldituko da 12. artikuluko 4. paragrafoa:

“4. Aurkezteko berariazko eperik ezartzen ez bada, Zergadunen Errolda Bakarreko alta aitortpena jarduerari ekin zaienetik edo eragiketarako egin direnetik hilabete pasatu baino lehen aurkeztu behar da, hurrengo idatz zatietan ezarritako kasuetan izan ezik.

a) Jarduera ekonomikoak egiten hasteko beharrezkoa bada jarduera ekonomikoen gaineko zergan alta ematea Arabako Lurralde Historikoan, zerga horren matrikulan alta eman izana baino lehen aurkeztu behar da Zergadunen Errolda Bakarrean alta eman izanaren aitortpena.

b) Ordaintzen edo zor diren etekinei edo errentei atxikipena edo konturako sarrera aplikatu behar bazaie, ordaintzen edo zor diren etekinei edo errentei atxikipena edo konturako sarrera aplikatu beharra sortu edo artikuluko honetan adierazitako inguruabarrak gertatu baino lehen aurkeztu behar da alta aitortpena.

c) Artikulu honetako 3. paragrafo e) idatz zatian ezarritakoaren arabera Zergadunen Errolda Bakarreko altaren aitortpenak berekin badakar jardueraren hasieraren jakinarazpena, ondasunak eta zerbitzuak eskuratu direlako jarduera egiteko asmoarekin, jarduerari ekin baino lehen aurkeztu behar da.

Batasunaren barruko eragileen erregistroan sartzeko eskaera, artikuluko honetako 3. paragrafo g) idatz zatian ezarritakoa, foru dekretu honetako 4. artikuluan ezarritakoa gertatu baino lehen aurkeztu behar da.”

Hiru: 13. artikuluko 2. paragrafo g) letra aldatzen da, eta honela idatzita geldituko da:

“g) Aurreko c), d) eta e) idatz zatietan eta foru dekretu honetako 12. artikuluko 3. paragrafo f) eta h) idatz zatietan aipatutako hautapenak ezeztatu edo eskaerak aldatu, eta paragrafo honetako f) letran eta foru dekretu honetako 12. artikuluko 3. paragrafo i) idatz zatian aipatutako egoeretan gertatzen diren aldaketak jakinarazi.”

Lau: b) idatz zatia eransten zaio 13. artikuluko 4. paragrafoari; hortaz, b), c), d), e), f) eta g) idatz zatiak hemendik aurrera izango dira c), d), e), f), g) eta h), eta b) idatz zatia honela idatzita geldituko da:

“b) Jarduera ekonomikoak egiten hasteko beharrezkoa bada jarduera ekonomikoen gaineko zergan alta ematea Arabako Lurralde Historikoan, jarduera ekonomikoen gaineko zergan gorabehera eragin izanaren jakinarazpena aurkeztu baino lehen aurkeztu behar da erroldan aldaketa eragin izanaren aitortpena. Jarduera ekonomikoak egiteari utziz gero, zerga horren matrikulan baja eman izanaren jakinarazpena egin baino lehen aurkeztu beharko da erroldan aldaketak eragin izanaren aitortpena.”

AZKEN XEDAPENA

ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean foru dekretu hau.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko martxoaren 10a

Diputatu nagusia

JAVIER DE ANDRÉS GUERRA

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

AITOR URIBESALGO LORENZO

Ogasun zuzendaria

JUAN IGNACIO MARTÍNEZ ALONSO